

**“DAGIANAK AGINDUA, JAN DEZALA”.**  
**EUSKARAREN ERABILERA ZUZENA.**  
**IKUSPEGI ADMINISTRATIBOAK**

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.25*

*Jose Luis Lizundia Askondo*

Euskararen jagote eta erabiltze onaz izeneko kapitulu bat aurkeztu nuen Arkauteko Nekazaritza Eskolan 1992.eko urrian HAEE/IVAP eta HPINK antolatutako jardunaldietan. Bost ataletan banatu nuen nire txostena eta zilegi bezait zuzen-zuzen gaurko gaiarekin zer ikusia duen zatia hemen aipatzea, (Ikus/irakur 22, 23, 24, 25, 26 eta 27 orr.).

“Hizkuntz administrazioa”. Ene ustez, oraindik euskaldunok eta euskaltzaleok ez dugu gizarte kontzientziarik, ez politika kontzientziarik ere, zer suposatzen duen eta nola hain premiatsua dugun hizkuntz administrazio baten beharrian hori, beste hiritargo bizitzaren edozein alorretan normalizat hartzen dena. Adibidez, nekazal administrazio bat, hasi Autonomia Administrazioetik eta hiru Foru Administrazioetan —eta Nafarroan beste era batera gauza bera— eta nola jaisten den eskualde buroetaraino, OCA deritzaren Eskualde Nekazal Bulegoetara. Eta nekazal administrazio horrek badituela bere ikuskatzaileak, bere urzainak, basazainak eta abar. Gizarte Ongizateko administrazio oso berria izanik. azken belaunaldietakoa Foru Administrazio eta amankomunazgoen bidez, eskualdez eskualde eta udal nagusiek bakarka, hiritargoak bidezkotzat hartzen hasia du. Hirigintzan normalizat ikusten du, ikuskatzaile batzuk izatea, zigor neurri batzuk hartzea, eraikuntza indize bat pasatzen baldin badu, plan partzial batek edo besteak markatutako arauak, Arkitektoen Elkargo Ofizial proiektuak “onikusia” edo “visado” beharra eta abar.

Hizkuntzarena ordea, Euskararen Erabilerako Legea izanik, Euskal Herri honen mendebaldean eta “Ley Foral del Vasconce” delakoa ekialdean, ez da horren beharrianik ikusten. Bagabiltza herri borondatez, herri ekimenez, euskaltzaletasunez lanean, legeriarik ez Administrazioerik ez genuen urteetan bezalaxe. Frantses Administrazioak —duen zentzu ona kasu honetan— eta Quebec-en ere holako zerbait ikusten da, gureganatzea nahiko nuke. Horretaz, txosten horren atal batean hau esa-

ten nuen, (ikus 18. orrialdea), baina gaurkoan “administrazio periferiko” horrena ahanzi gabe. zenbait aplikazio zehatz ekartzea nahi nituzke, beti ere HPIN edo HPZNren eskutik.

EA Eren 6.2.n hau dio: “Komunitate Autonomoko *Erakunde aman-komunek* Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen erabilpena *bermatuko* dute, beroien ofizialtasuna *erregulatuz*, eta beroien ezagutza ziurtatzeko behar diren *medioak* eta *neurriak* erabaki eta baliaraziko dituzte”. Artikulu hau eta Euskararen Erabilpenerako Oinarrizko Legea kontuan izanik, hizkuntz administrazio hau eta beste menperatu eta garatu beharko lirateke, erabilpen zuzena segurtatzeko medioak sortu eta baliaraziz. Horretarako, herrialde eta eskualde desberdinetara administrazio periferikoa eratuz, batetik, eta bestetik, erabilpen zuzena, kalitatea, jagoteko neurriak hartuz.

Zenbait aipamen egingo nituzke, hala nola, Euskararen Legearen 10. artikulua garapena 271/1983 dekretua (Udalen izena ofizialtzeko da-goena) eta Bizkaiko Batzar Nagusien 8/93 foru arauaren antzera, udal ordenantzak ere kontuan izanik, goitik beherako mailaz mailako ziurta-pen juridiko eta sare administratiboa hedatu. Gai berari jarraiki Toponimia gaietarako batzordea sortzeko dekretugaia jorratu zen, parte hartu baitnuen, eta agian seinalizapen agerizko guztien “Izendegintza”-ri lotua izan beharko lukeela esaten nuen, Administrazio desberdinentzat baliagarria eta bete beharrezkoa.

Ez da oraindik gauzatu, baina uste dut behar-beharrezkoa dela eta edozein legetarik kontuan harturik 10. artikulua eta 6.2. Estatutuarena martxan jartzeko moduan ezarri. Adibide batzuk ekarri nahi nituzke hona, holako administrazio erakunde bat ez izateak dakartzaten ondorioez: orain urte t’erdi inguru Eusko Jaurlaritzako Herrilan Sailak Euskaltzaindiari eskatu zion “Camino de Santiago” nola izenda beharko lukeen. Onomastika batzordeak eman zuen bere irizpena, baina dirudenez Arabako Foru Administrazioa ez zen iritsi eta Diputazioak “Santio Bidea” jarri zuen. Jaurlaritzako beste administrazio zenbaitzuk beste izen batzuk erabili zituzten, zenbait udaletxetan, beste era batera, erakusketa ofizialetan id. Beraz, irizpen horrek oso balio gutxi izan zuen. Esango dut Nafarroako Foru eta Autonomi Administrazioa –biak baita– bidali zuela Euskaltzaindiak eta han ondorio zehatzagoak izan zituela, administrazio bakarra eta aspaldidanik hedatua delakoa, agian.

Beste bat aipatzeko Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak egindako estudio baten ondoren, Urkiolako parkearen mapa eta seinalizapen bat burutu zuen dirudenez subkontratazioz –eta subkontratazio administrazioak euskararekiko sortzen dituen nahasmenduz luza mintza gaitetz-ke– etxeren batek egin zuen toponimiazko eta seinalizapen lan hori,

izugarritzko errakuntzekin. Eskerrak Bizkaiko Foru Diputazioak Euskaltzaindiarekin hitzarnena eginda daukala eta so egon zela jagoten bertako itzultzaile eta euskaltzain urgazle arabar bat, Patxi Uribarren, gure ondoren hitz egingo duena. Horrek gaztigatu zidan eta konpontzeko bideak jarri ziren. Dirudienez, HPINK lan on batzuk sustatzea, hola nola, DEIKERek egindako lana, gero, alboko administrazioek ez badute kalitate kontrol edo erabilpen zuzenaren neurririk hartzen, alferrekikakoa da.

Beste bat eta gonparatzeko jarriko nuke Hezkuntza Saileko euskara zerbitzuburu den Mikel Zalbidek eta berarekin dagoen Jose Mari Berasategi teknikariaren bidez, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak aztertu ditu EAeko herri-ikastetxe eta institutu guztien izenak. Banan-banan eta gehienbat toponimo edo leku izenak bultzatuz, lan ona egiten lagundu dio Euskaltzaindiaren batzorde horrek Hezkuntza Sailari, baina galdetuko nuke zer babes juridiko izan duen langintza horrek —Galizian ordea, badago *Diario Oficial de Galicia* n.º 11, 24.11.83 delakoan agindu bat gai horretaz. Hemen agian hori egin ez delako, udal bakan batzuk bere kontutik muzin egin diote Euskaltzaindiaren irizpen akademikoari, gehiago dena, txokokerian erori. Alferrik izan da Uribe Kostako udal batentzat esatea *Ibarra* dela izen gomendatua eta ez *Iberre*, XVIII. mendetik Bizkaiko fogerazioan dokumentatuta, bertako deitura edo abizena, bertako zinegotzi batek gaur ere daramana —eta ez da izen bakarra udal horretan— irizpen akademikoa ez da jarraitu. Uste dut hor ere hizkuntza administrazio zentzu falta bat edo/eta horrelako batzorde ofizial bat, agintzen duena dekretu bidez eta gero agindu bidez abiatuko dena administrazio desberdinetan, dela hezkuntza, dela nekazaritza, dela herri-lan eta beste.

\* \* \*

Pasatuko naiz orain foru administrazioetara, beraietan ez baita Euskararen Legearen 10. artikulua foru arau, dekretu edo agindurik, lehen aipaturikoa salbu, garatu. Udaletara jaitsiz ez 6.2. artikulua agintzen duena betetzeko kontzientziarik eta administrazio neurririk ere ez da somatzen, Euskararen Legearekin ezta.

Ondorioz, itzultzaile zuhur eta jantzien eskua iristen ez denean —eta oroitzen naiz subkontratazioen arriskuaz nola behin Gotzon Egia Gipuzkoako Foru Diputazioko itzultzaile azkarrak esandakoaz— ez dago kalitatezko kontrol bat egiterik, beste administrazio alorretan, dela hirigintza, dela nekazaritza, herrilan eta besteetan bete eta betearazten dena. EUDELen Zuzendaritzari, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak planteatu zion honetaz zerbaitekin, baina ez da gauzatu. Bestalde, bere agintea morala besterik ez da, bistan denez. Udal ordenantzak, egin direnak, askotan

gehiago izan dira adierazpen politikoak, neurri administrazioetakoak baino, eta neurri administratiboak aipatzen direnean, hizkuntzaren erabilera zuzenaz edo kalitatez oso urri eta motel agertzen dira. Dena dela, hemen horretarako gaudenez, hori planteatzeko, “forum” gisa planteatzen dut Jardunaldi honen xedea eta gurea, Andres Urrutia eta biona, hori baita horren kontzientzia irekitzea, ez bakarrik Autonomi Administrazioan, hiru Foru Administrazioetan eta Nafarroakoan ere, Udal administrazioetan. Gero ikusiko dugu Oñatiko adibide bat, interesgarria. Baina Udal gehienetan alkate eta zinegotzietz gain, funtzionarioek beraiek ere ez dute oraindik hizkuntza administrazio zentzurik hartu, are gutxiago aurretiazko irizpen, “onikusi”, ikuskatzaile, erabileraren ziurtapen, neurri administratibo eta abar, non eta nola, bete eta betearazi.

Nafarroakora pasatuz, Nafarroan HPZnK neurri batez errezagoa du nahiz eta legeak zoritxarrez hiru eremu jarri, eta da administrazio bakarra izatea, hala eta guztiz ere, eskualde eta bereziki udal administrazioetan hedapen zentzu bat gauzatzea litzateke helburua. Zenbait amankomunazgo sortuak izan dira, ordea. Nolabait *Nafarroako Herri Izendegiari* Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuarentzat egina hain zuzen, jartzen duen ildotik hizkuntza administrazio bat eratzea posible litzateke euskal eremuan, 4-5 bat azpiadministrazio eratuz bere ikuskatzaile. laguntza tekniko eta abar ezarriz? Hor legea bete eta betearazteko, administrazio kontzientzia sortu eta sortuarazteko, informazio zerbitzuak sortzeko badago zenbait lan eta hor erabat murgildurik, euskararen erabilpena ziurtatzeko eta erabilpena ziurtatzen denean erabilpen zuzena eta kalitatezkoa ziurtatzeko hartu behar diren neurriak, medioak eta laguntzak barne.

Iparaldearekikoaz, ordea, ezer gutxi esan dezaket, euskara ez baita zoritxarrez, hizkuntza ofiziala, baina hala eta guztiz ere, udal mailan eta Euskal Kulturaren Erakundearen laguntzaz zenbait herritan hasi dira euskararen erabilpena sortzen, xumeki bada ere, nahiz eta batzuetan erabilpen zuzena ziurtatzeko, irizpen eskabidea iritsi Euskaltzaindiko Baionako Ordezkaritzara. Gehienbat seinalizapen, herri-izen, ponte-izen eta antzerakoetara mugatu dira.

\* \* \*

Zenbait ondorio ateratzen ditut guzti honetatik: gaur eta hemen ezin diogula arazo honi aurre egin, baizik eta eztabaida gisa, forum gisa, soluziobideak planteatzen hasi. Hasteko bi ardatz ikusten ditut, aldebatetik, herri-administrazioena eta hemen nagusigoa, HPIN —eta hemen EAB lege garapen batzordea ez nuke ahaztuko— eta HPZN dutela uste dut, ahanzi gabe badaudela beste zenbait goiko erakunde ere, hala nola: HAEE/IVAP, IZO eta hiru Foru Administrazioetako Euskara Zerbitzuak,

EUDEL, udal zerbitzuak. Bestetik, Euskaltzaindia eta honen laguntzaile izan daitezkeen elkarte edo talde, hots, UZEI, ELHUYAR eta beste.

Beraz, proposatzen dudana honako hau da: Jardunaldi hauetatik landa, gai honetaz jardutea, alde batetik corpusaren aldetik zer eginkizun dituen Euskaltzaindiak eta bestetik; lege garapen alorrean, lege sektorialetan, dekretu, agindu, ebazpen eta abarretan nolako neurri administratiboak hartu behar diren, herri-administrazio orotatik, hau guztiau gauzatzeko. Informazio kontu bat ere beharko litzateke eta horretarako kontzientzia sortze bat ere eta beste administrazioen antzera, gomendio eta diktamen akademikoez ere hitz egin beharko genuke; erabilera zuzenaz, kalitatezko ziurtapenez eta abar.

Herri-Erakunderen batek guzti hau, bekaduren batez aztertzeko Zuzenbide Fakultatean lizentziatu den norbaitekin, ikerketa bat egitea litzateke hoberena eta baita ere, orain arte egin diren, Euskaltzaindiak, HAEE/IVAP, eta bestek egin dituzten terminologi lan eta argitalpenak kontuan izanik. Baita ere HPINren bidez, gauzatu diren zenbait ekintza bateratu, ez bakarrik adibide gisa, baita ere zerrenda eta langintzetara gehitzen joateko errenta aitortpena, seinalizazioena, barne-errotulazioena, eta abar. Elkarrizketa eztabaida ireki, administrazio, erakunde eta Akademiaren artean, agian datorren urtean, jardunaldi propio batzuekin gara daitekeena. Azterketa juridiko gonparatuak, Galizia eta Katalan herrialdeetakoekin segitu, honek abaintala bat baitu eta hau da: antzerako legeria izango dutela hizkuntzarekiko, nahiz eta hizkuntzak egoera desberdinetan egon. Lege ikerketa horretan ikusten ditut zerbait urrats desberdin araka daitezkeela, hala nola subentziobideak; lege edo arauak bete edo betearazteko neurriak, isunak barne, hau azken soluzioa bada ere, beste edozein administrazio motetan onartzen baita, hots, hirigintzan, nahiz nekazaritzan, nahiz herrilanean, nahiz besteetan; bide sozialak, alegia, gizarteak erabili behar dituenak eta abar

Beste arazo bati ere garrantzia ematen diot eta da: aldizkari ofizialetan agertzen direla erabaki administratiboak, euskararenak ordea gutxi, duten arauaile zentzuarekin, bai Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, bai herrialde bakoitzekoan, bai Nafarroakoan. Auzoen izenak, ez bakarrik udal izenak, Euskaltzaindiak ematen dituen gomendio irizpenak aldizkari ofizialaren babes juridiko bat izatea handia litzateke.

Ez ditut ahanzi nahi, euskararen normalizatzean zerikusia izan dezatekeen zenbait enpresa, seinalizazioko eta beste, beraiek badakite ezin dutela ezer kaleratu, hirigintzako, industria edo beste edozein administrazioen ziurtapen, egiaztapen, ikustapen edo onikurisik gabe. Alderantziz, euskarazkoak errakuntzaz beterik agertzeak ez die bat ere kalterik sortzen eta erruz ikusten dira. Beraz, enpresa horiekin ere -eta ez dira

hainbeste-harreman bat beharko litzateke izan, aurretiaz neurriak hartzeko eta jakinarazteko dagokion erakundearen onikusi linguistikorik gabe, ezin dutela ezer argitaratu, kaleratu eta seinalizatu.

Eusko Jaurlaritzaren Sail desberdinen arteko sare bat antolatu beharra errazagoa ikusten badut ere, hiru Foru Administrazioen artean behar-beharrezkoa ikusten dut, zeren eta kopuruz Jaurlaritzak baino gehiago seinalizatzen baitituzte, LTHk emandako kompetentzien arabera, dela errepide, herribaso, naturgune, industrialde eta abar.

Udal administrazioena ere arretaz hartu beharra dago, horretarako Euskara Zerbitzua duten udalek sare honetan sartu beharko luketelarik eta nolabait administrazio jerarkiaren eta hizkuntzaren ziurtapena kontuan izanik, eta ez bakoitza taifa erreinua bezala ari. Itzultzailea dutenak gauza bera. Itzultzaile bat izateko ere txikiegiak direnak, Euskal Herrian zehar hizkuntza zerbitzuetarako amankomunazgoa sortu beharra legoke. Badakit, badaudela Nafarroan batzuk, baina hori Euskal Herri guztira hedatu beharko litzateke. Ez dut ulertzen esate baterako, zenbait eskualde txikitan Lea ibarrean, Arratia eta besteetan, amankomunazgoek izanik nola ez duten holako zerbitzu bat, udalak txikiegiak baitira, zerbitzu teknikoak gauzatzeko; jakinik, bestalde, beste zerbitzu tekniko batzuk amankomunean dituztela.

Administrazioak/ek, Parlamentuek —eta gure kasuan Batzar Nagusiek ere— ematen dituzten lege —eta foru arauak— kontuan izanik garapen eta gobernu eginkizuna dute. Gaurko gure xedeari lotuta hizkuntzarekiko garapen eta administrazio sortzea litzateke, eta xehekiago, bere erabilpen zuzenari, kalitatea ziurtatzeari.

Ditugun erakundeak kontuan izanik HPIN/HPZN, HAEE/IVAP, Saitetako Diputazio eta Udaletako Euskara Zerbitzuez gain, beharrezko izan daitezkeen beste batzuk sortuz edo, agian, koordinakuntza lanetarako. Inlormazio zerbitzu orokorrak, herrialde edo eskualde mailakoak sortzea eta hedatzea litzateke eztabaida genezakeen puntuetariko bat, argibide-zabalkunde argitalpenak, aldizkari ofizialen separatarko argitaratzea eta abar.

Quebec-eko Probintzia Administrazioak “mesures” neurriei ematen dien garrantzia nabarmendu nahi nuke, gaur eta hemen, kalitateaz arduratzeko, alegia, administrazio neurriez. Eta hau esaten dudanean, bai Nafarroan, baina are gehiago EAEn, esparru desberdineko administrazioez ari naiz, ez baitu zertan Jaurlaritzako Administrazioak zertan dena egin, berari badagokio ere “indirizzo” eginkizuna. Foru Administrazio batek ere —euskararekiko kompetentzia zuzenik ez badu ere, LTHren arabera— barnerako zerbitzu hedatzeaz gain, eta hor izugarritzko eginkizunak ditu euskara erabiltzekoan eta zuzen erabiltzeko: dela Foru Oga-

sun, dela errepideetan, nekazal zerbitzuetan kultur sustapenetan, gizarte ongizatean eta abar, baluke zertan sustatu udalekiko duen Sailean, udal-kidetza programan udal, kontzeju eta amankomunazgoetarako banatzen dituen laguntzetan euskararen erabilera ziurtatzeko azpiprogramak ezarri. Ildo hori, inoiz aipatu dut Gernikako Juntetxean.

Udal Administrazioan ere —gezurra badirudi ere askok Udala ez dute Administraziozat jotzen— eta ezer bada hori da, hiritarren administrazioerik hurbilena, euskararen erabilera eta erabilera zuzena ziurtatzeko neurri administratibo eta tekniko sortze eta hedatzeaz oso gutxi arduratu gara. Badira, egia esan, euskara zerbitzu eta itzultzaile trebe eta arduratsuak, baina askotan udal agintari eta gainontzeko funtzionari askogandik, bigarren mailako zerbitzu auxiliartzat hartzen dituzte, irudi hustzat hartzen ez dituztenean. Arlo honetan, eztabaida aberasgarria sortu beharra ikusten dut, inor konkretu kritikatu gabe, politika alderdikeria izpirik gabe. Gaia hau litzateke: nola hedatu udal administrazioetan, hirigintza eta gizarte ongizatearen pareko izpiritu eta kompetentzia berberekin euskararekiko “negoziatuak” eta ez udaletxe barnera begira, udalbarruti guztiko hiritargoentzat.

Enpresa publiko eta parapublikoez, elkargo profesional eta ganbara ofizialez aipamen berezi bat egitea nahi nuke. Quebec-eko “Charte de la langue française” delakoan, kapitulu oso bat, V.a hain zuzen, dago horri eskainia.

Euskal Herrian badira enpresa publiko horietako asko, bereziki Autonomi eta Foru Administrazioetan, gutxi udaletan, hiriburu edo handietan ez bada. Eusko Trenbideak, EJJIE, SPRI eta beste ez dakit zenbait diren Eusko Jaurlaritzan; TRACASA eta abar, Nafarroan. Araba eta Gipuzkoan ez dakizkit, baina hara hemen Bizkaikoak: Lantik, Basalan, Azpiegitura, Beaz, Garbiker, Aparcavisa, Intermodal, Centro de Diseño Industrial, Boroa Seed, Euskalduna Jauregia. Guzti horietan euskararen erabilera eta erabilera zuzena ziurtatzeko ahalegin propio batzuk egin beharko genituzke kontuan izanik aurreko 9.212 milioi pezetako aurrekontua dutela.

Elkargo edo kolegio profesional eta ganbara ofizialez gauza bera esango nuke, ahantzi gabe Euskal Herriak duen Burtsa ofizial bakarra, Bilbokoa, zeinek bederen euskararen erabilera eta terminologia finkatzeko ahalegin berezia egin baitu Euskaltzaindiaren aholkularitzaz. Adibide bat jartzeko “Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala/Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro”, lau herrialdeetara hedatzen den elkargo honek badu oso eginkizun garrantzitsu bat, hirigintza eta etxegintzarako “onikusi” edo “visado” emate derrigorrezko bat. Honelako erakundetze bat ausnartzea nahiko nuke, Jardunaldi hauen fruitu legez.

**EUSKARAREN ERABILERA ZUZENA DELA-ETA, –ADMINISTRAZIOEKIKO EZTABAIDARAKO– DEKALOGO PROPOSAMENA:**

- Euskararen erabilera eta erabilera zuzenarekiko erakundetzeari ekin eta lagundu, hasi goren eta orokorrenetik eta udal administrazio mailaraino.
- Politiko orori –governatzen nahiz oposizioan izan– euskararen erabilpen zuzenaren kontzientzia edo/eta sensibilitatea sor/sumar/nabarmen arazi.
- Erakunde eta sail bakoitzak, orokorki, herrialdeka, eskualdeka edo udalka, zeintzuk giza eta teknika medio eta lanabes hornitu behar dituen aztertu. Urteroko aurrekontu/lege arauetan honen arta izan.
- Euskal terminologiaren zehaztasuna finkatzeari ekin: mezuaren argitasuna zaindu; euskara batuaren maila: idatzia eta administratiboa eta herri-hizkera mintzatuari, bakoitzari bere esparrua gorderik.
- Toponimia-Izendegigintza batzordea. Terminologia batzordea eta Administrazio Hizkuntza Mintegi batzuk ofizialki sortu, bakoitzari dagozkion babes juridikoa eta hornidurazkoak emanaz.
- Funtzionarioen –bereziki hizkuntza zerbitzuetako– trebakuntza bultzatu Euskararekiko –hizkuntzaren kalitatearekiko– profesionaltasuna aberasten joateko harreman sarea eratu.
- Euskararen erabilera zuzena bermatzeko subentzio eta saristatzen neurri pizgarri eta bultzagarriak hartu, bete eta betearazi.
- Akademi arau, gomendio eta irizpenak, zentzurik bateragilean jagon eta jagonarazi .
- Akademiarekiko hizkuntz agintea gomendiogintza eta aholkulartza gauzatzeko neurri eta lanabesak eskaini.
- Herri-Administrazio oro, euskararekiko profesional eta Euskaltzaindiaren arteko harreman koordinakuntza eta elkarrizketa gu-neak sortu eta garatu.